

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Otsailean POCTEFA-ren deialdi berri bat irekiko da mugaz gaindiko proiektuak finantzatzeko, 4,9 milioi euro Nafarroari zuzenduz

Nafarroako Gobernuak diru-laguntza hauek jasotzeko interesa duten entitateei aholku emateko, informazio puntu bat eskeintzen du.

Astelehena, 2018.eko azaroak 19

Datorren otsailean 2014-2020 bitarterako POCTEFA-ren hirugarren eta azken deialdia irekiko da mugaz gaindiko proiektuei zuzendutakoa, zeinan dagoeneko, Nafarroako entitateetat FEDER funtsetik 4,9 milioi euro gorde diren. Deialdi honetan parte hartzeko interesa duten Nafarroako entitateei aholku ematearren, Nafarroako Gobernuak Proiektzio Internazionalako Zerbitzuan (Servicio de Proyección Internacional) informazio puntu bat bideratu du dagoeneko, mroncald@navarra.es helbide elektronikoaren bidez harekin harremanetan jar daitekeelarik.

Oraingo honetan deialdia fase bakarrean eramango da aurrera eta proiektuen bultzatzaileek bi hilabeteko epea izango dute haien hautagaitzak aurkezteko. Erabakia 2019. urte bukaera baino lehenago hartuko dela aurreikusten da.

Deialdi honetan, programan parte hartzen duten eskualde hautagai multzoari zuzendutako diru-laguntzaren zenbatekoa, Programaren zenbateko osoaren %20-a izango da gutxi gora behera, 35 milioi euro, esan bezala, oraingo honetan Nafarroari 4,9 milioi euro zuzenduko zaizkiolarik. Proiektuak programaren edozein ardatzen inguruan aurkeztu ahalko dira:

- Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatu.
- Aldaketa klimatikoarekiko egokitzapena eta arriskuen prebentzio eta kudeaketa bultzatu.
- Tokian tokiko baliabideen babesa, balorapena eta erabilera jasangarria bultzatu (ardatz honen barruan soilik, mugaz gaindiko ekosistemak babestu eta hobetzean zentratutako 6d lehentasuna duten proiektuak onartzen dira).
- Ondasun eta pertsonen mugikortasuna hobetu eta eskualdeetako kompetentziak eta inklusioa indartu.

50 proiektu nafarrak

Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2014-2020) Proiektuak, egun, programatutako 120 proiektu ditu bi deialdien barnean, osotara Eskualdeen Garapenerako Europar Funtsetik (FEDER) 142,15 milioi euro suposatzen dituelarik. Proiektu hauetako 50-ek Nafarroako entitateen partaidetza izan dute, Foru Komunitateko entitate bultzatzaileek 14,6 milioi

euro jaso dituztelarik orain arte.

Ez dago soberan POCTEFA programak Espainia-Frantzia-Andorra muga zonaldeko integrazio ekonomiko eta soziala bultzatzeko helburua duela oroitaraztea. Honako eskualde espainiarrak POCTEFA 2014-2020 programaren elkarlan zonaldearen parte dira: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Errioxa, Huesca, Zaragoza, Lleida, Girona, Bartzelona eta Tarragona. Frantzian berriz: Pyrénées-Atlantiques, Ariège, Haute-Garonne, Hautes Pyrénées, Pyrénées-Orientales; eta Andorra.

Informazio gehiago www.poctefa.eu web orrian.